

Hilekoaren aurreko nahastea detektatzea errazten duen test bat sortu dute

Hilekoaren aurretik zenbait emakumezko izaten dituzten asaldurak detektatzeko tresna bat garatu du Leire Aperribai EHUko psikologoak, bere doktore-tesian. Izan ere, emakumezko askok hilekoaren aurretik ez dute ezer berezirik nabaritzen; beste batzuek, ordea, egunerokotasunean eragozpenak sortzen dizkieten asaldurak izaten dituzte: gogo-aldarte depresiboa, herstura, sentiberatasun emozional areagotua, nekea, kontzentratzeko arazoa, zefalea...

Hala ere, ez dago asaldura hori definitzeko eta diagnostikatzeko irizpide adosturik, eta, horren ondorioz, "zaila da sintomak pairatzen dituzten emakumeekin esku-hartze egokiak bideratzea", Aperribaik azaldu duenez. Hala, tesian, lehenik asaldura definitzen saiatu da.

Horretarako, Estatu Batuetako Psikiatria Elkartearen buru-nahasteen diagnosi- eta estatistika-eskuliburuaren laugarren bertsio berrikusian oinarritu da.

Eskuliburu horrek hilekoaren aurreko nahaste disforikoa definitzen du, eta hura diagnostikatzeko irizpideak proposatzen ditu. Besteak beste, sintomak jendartean edo lanean kalte nabarmena eragiteko bezain larriak direla azaltzen du, eta fase luteinikoa gertatzen direla zehaztu; hau da, obulatu eta hilekoa izan bitartean.

Hortik abiatuta, Aperribaik galdera-sorta bat sortu du, eta hura balioztatu du, EHUko hiru campusetan lanean edo ikasten dabiltzan emakumezkoiei egindako elkarrizketen bitartez. Horren bidez, fidagarria dela frogatu du. Hain zuzen, kalkuluen arabera, populazioaren % 3-10ek pairatzen du



Leire Aperribai psikologian doktorea.
ARG.: MARISOL RAMIREZ / © ARGAZKI PRESS.

hilekoaren aurreko nahaste disforikoa, eta, Aperribaik egindako ikerketan, detektatutako positiboak % 15 izan dira.

Egileak azaldu duenez, alde hori "normala da, screening test bat baita. Hau da, ez da diagnostikoa egiteko tresna bat, baizik eta iragazki bat, nahastea izan dezaketen emakumezkoak eta ez dutenak bereizteko". Alderdi horretatik, oso erabilgarria dela adierazi du Aperribaik, bai ikerketan, bai medikuzentrotan. "Testa egiteko nahikoak dira 10 minutu, edo are gutxiago, eta horrekin asko aurreratzen da. Gero, positiboak izan diren kasuetan, diagnostiko-probak etortzen dira, eta horiek bi hilabete ere iraun dezakete". Testa gaztelaniaz prestatu du, eta orain euskaratzen ari direla jakinarazi du Aperribaik. ●

Oroimenerako gaketat jotzen zen molekula ez da uste zen bezain garrantzitsua

Elkarren artean zerikusirik ez duten bi ikerketak frogatu dute orain arte oroimenaren molekula izenarekin ezagutu den entzima ez dela ardatza, azkenaldian egin diren ikerketek erakusten zutenaren aurka.

Protein kinasa M-zeta entzima da molekula hori, eta 2006tik aurrera egin zen ezagun, bazirudielako ezinbestekoa zela oroimena izateko eta gordetzeko. Hori ondorioztatu zuten urte hartan egindako ikerketa batean, eta gerora egin dituzten beste hainbat ikerketek uste hori indartu dute.

Hain zuzen, ikerketa gehienak protein kinasa M-zeta blokeatzean edo areagotzean oinarritu dira. Adibidez, ZIP izeneko peptido bat garunean injektatuta, entzima blokeatzea eta, horrela, zenbait motatako memoriak ezabatzea lortu dute karraskariekin, euliekin eta itsas bareekin egindako ikerketetan. 2011n, berriz, arratoi batzuen oroimena sendotzea lortu zuten, protein kinasa M-zeta genearen kopiak zituzten birusak injektatuta.

Alabaina, orain egin dituzten ikerketek beste bide batetik jo dute. Johns Hopkins Unibertsitateko talde batek eta Kaliforniako Unibertsitateko beste batek oroimenaren entzimarik gabeko sagu transgenikoak sortu dituzte, bakoitzak bere aldetik. Eta saguek ez dute inolako oroimen-arazorik izan, ez talde batekoek ez besteek.

Horrez gain, bi taldeek frogatu dute ZIP peptidoak oroimenak ezabatzea lortzen duela, nahiz eta saguek ez eduki protein kinasa M-zeta entzima. Horrenbestez, azken bi ikerketa horiek agerian jarri dute, ez soilik protein kinasa M-zeta ez dela lehen uste zuten bezain garrantzitsua, baizik eta oraindik galdera asko dituztela erantzuteko, oroimenaren funtzionamendua ulertzeko bidean. *Nature* aldizkariak argitaratu ditu ikerketak. ●